astiberri

6 URTETIK AURRERA



BIGA 2. SUPER LAGUNA!

Gidoia: **Romain Pujol**
Marrazkiak: **Vincent Caut**
Itzulpena: **Mitxel Murua**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2026
Kolorea. Paper-azala azal-hegalekin
64 orrialde. 17 x 21,5 cm. 10 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-18215-42-1

5. EDIZIOA

Bigaren beste ale bat labetik atera berria; ume berezi honen abenturak **"ikaragarri dibertigarriak izateaz gainera, hezigarriak ere badira"**, esan zuen Jesúz Jiménezek RTVE.es-en

Diferentzia abantaila denean: itzuli da Biga!

Banbu, lagunik handiena; Kara, mireslea; Kyle, abusoia... Biga, Animalien Lehen Hezkuntzako ikasle berria, eta bere mundua topatu ditugu *Benetan identifikatu gabeko animalia* alean (Astiberri, 2020). Eta gag berriak datoz bigarren abentura-liburukian; ale honek azal gorria dauka, Monstrofunen gutunak bezala, eta honetan ere orri bikoitza dator azkenean jolasekin. Haur berezi hau oso maitatua da bere lagun berrien artean; hala ere, inbidia pixka bat pizten die batzuei eta beldur pixka bat ematen dio ikasgelako

facebook.com/astiberri @astiberri
@astiberri.infantil
ASTIBERRI
astiberri.com
485 kutxatila. 48080. Bilbo
689 213 317 • prensa@astiberri.com

neska berri bati: Kati tigrekume emeari. Hori bai, epel eta exaxola ez du inor uzten, eta bere lagunek super heroia balitz bezala hartzen dute. Egia da super ahalmenak dituela, eta ez gutxi! Baina Bigak ez du justizia bere eskutik hartzen, telebistan super heroiek askotan egiten duten bezala, eta bere ikaskideek superlaguntzat hartzen dute jolastokian.



“Fan eta jarraitzaile itsua deklaratzen naiz pertsonaia txiki honena, berez urdina izan arren, kolorez aldatzeko edo txikle bat bezala luzatzeko gai den izaki kutun”.

Anika entre libros

“Haize freskoaren bafada bat komikiaren munduan, irakurle txikientzat!”.

Canal Lector

“Ikaragarri dibertitua izateaz gainera, hezigarriak ere badira abentura hauek, irakurtzen hastearekin batera garrantzi handiko gauza asko irakatsiko baitizkiete haurrei: diferentziak errespetatzea, bullyinga ezagutzea eta horren kontra borrokatzea edo adiskidetasunaren garrantzi itzelaz jabetzea, adibidez”.

Jesús Jiménez, *RTVE.es*

“Bitxitasunari kantu bat”.

El Día de Córdoba

“Tira klasikoaren esparruan kokatua, Bigak gaitasun miresgarria du handiak nahiz txikiak harritzeko, eta itxura ona du ale honek, oso ona ere”.

Trece millones de naves

ROMAIN PUJOL (Albi, 1989) eskola garaiaz gero ari da bere unibertso propioa sortzen eta irakasleen eta eskolakideen karikaturak eskuetan erortzen zitzaion edozein paperetan marraz-ten. 2006an bigarren saria eskuratu zuen "Teenagers" kategorian Colomierseko komiki lehiaketan. Hura izan zen bere grina ogibide bihurtu behar zuelako baieztapena. 2007an, batxilergoa egi-ten ari zen bitartean, bere pertsonaia zoro-zoroak lantzen zituen blog bat sortu zuen. Arte Aplikatuen lizentzia lortu zuen 2011n, eta hala lasaitu zituen gurasoak. Bera eta Thitaume, Tolosako gidoigi-le bat, aukeratu zituzten Rabbids bideo-jokoa komikira egokitzeko. 2013an, Milan argitaletxeak gazteentzako pertsonaia berriak sortzea proposatu zion eta proposamen hura *Avni* (Biga) saila bihurtu zen azkenean, Vincent Cautek marraztua eta *Toboggan* aldizkarian aldez aurretik argitaratua (400.000tik gora harpidedun). Thitaume bere lankidearekin elkarlanean gazteentzako beste sail baten gidoian lantzen ari da: *Balez et Malina.*

VINCENT CAUT (Melun, 1991) 13 urterekin ustekabean komiki-blog batekin topo egin zuenean hasi zen komigintzan. Zaletasunez eta dibertitzeko, interneten komikia lantzeko aben-turari ekitea erabaki zuen. 2009an bigarren saria eskuratu zuen Angulemako jaialdiko Révélation Blog lehiaketan, eta horri es-ker bere lehen albuma argitaratu ahal izan zuen, *Le Trésor de l'Île Mokoko* ("Mokoko uharteko altxorra") Diantre! argitaletxearent-zat. Vincent Caut arte aplikatuen ikasketak egiten ari da gaur egun eta gazteentzako ilustrazioan dihardu azkenaldi honetan (*Okapi, Phosphore,* Makaka, La Boîte à bulles…). *Avni* (Biga) sailaz gaine-ra, marraztu ditu baita ere Mes 100 premiers mots des animaux ("Animalien nire lehen 100 hitzak") eta *Où es-tu, Léopold?* ("Non zaude, Léopold?") saileko hiru liburuki.

astiberri

SAIL BEREKO BESTE LIBURUAK EUSKARAZ:



Biga 1
Benetan identifikatu gabeko animalia
5. edizioa
64 orrialde. 10 euro
ISBN: 978-84-17575-85-4



Biga 3
Errekreazioak, klik eta ekin!
4. edizioa
64 orrialde. 10 euro
ISBN: 978-84-18215-80-3



Biga 4
Biga endreda-makila
3. edizioa
64 orrialde. 10 euro
ISBN: 978-84-18909-08-5



Biga 5
Bat eta bakarra
3. edizioa
64 orrialde. 11 euro
ISBN: 978-84-18909-87-0



Biga 6
Arrosa koloreko bizitza!
3. edizioa
64 orrialde. 11 euro
ISBN: 978-84-19670-40-3



Biga 7
Txantxak sortzeko makina
3. edizioa
64 orrialde. 11 euro
ISBN: 978-84-19670-51-9



Biga 8
Aldaketak datoz!
2. edizioa
64 orrialde. 12 euro
ISBN: 978-84-10332-22-5

facebook.com/astiberri @astiberri
@astiberri.infantil
ASTIBERRI
astiberri.com
485 kutxatila. 48080. Bilbo
689 213 317 • prensa@astiberri.com


biga
BENETAN IDENTIFIKATU GABEKO ANIMALIA
TRANPA
Kara
KATY
KONTZENTRATU, UMEOK, AZTERKETA HAU OSO GARRANTZITSUA DA ETA!
Azterketa: eguzki-sistema
AZTERKETAK 30 MINUTU BARRU JASOKO DITUT.
AZTERKETA? ARRASTORIK EZ NUEN!
GAIZKI HASI ZARA, E? KAR-KAR-KAR!
PSSST, LEOI...! ZER JARRI DUZU 2. GALDERAN?
HURRENGORAKO IKASI EGIN BEHAR ZENUKEELA, HORIXE.
PUF!
BIGA! LAGUNTZEA NAHI DUZU?!


ALDAMENEKO GELARA! BAKARRIK EGINGO DUZU AZTERKETA!
BAI... ADOS... BARKATU, LEOI... BARKATU, BETOKER JAUNA...
KAR-KAR-KAR!
MUTIKO HONEKIN OSO ARGI IBILI BEHARRA DAGO, GERO!
AMAIA